

# LANBIDE-GARAPENEN OHIKO DEIALDIA

JARRAIBIDEEN ESKULIBURUA  
AUTOEBALUAZIO-FASEA

**Osakidetza**

# AURKIBIDEA

1	Sarrera .....	3
2	Aplikazioeako sarbidea .....	5
3	Autoebaluazioa .....	6
1.	A Blokea .....	8
2.	B Blokea .....	10
3.	C Blokea .....	11
4.	Eranskinak.....	11
5.	Gorde ziriborra .....	13
6.	Bidali autoebaluazioa .....	13

## 1. SARRERA

Deialdian onartutako behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, pertsona horiek **Autoebaluazio Fasean** sartzen dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abenduaren 19ko 2081/2025 Ebazpenaren 6. artikuluan jasotzen den bezala. Autoebaluazioa, alde batetik, faktoreak ebaluatzeko informazio garrantzitsua ematean datza, **Autoebaluazio Fitxaren** bidez, eta, bestetik, autoebaluazioan zehar, curriculum-merezimenduak alegatzean.

**Autoebaluazio-fasea** borondatezkoa da, ez derrigorrezkoa. Onartutako pertsonak informazioa ematen dute, eta beren lanbide-taldearen arabera aplikatu behar zaizkien faktore ebaluagarrien autoebaluazioa egiten da. Gainera, fase horretan, onartutako pertsonak beren curriculum-merezimenduen egoera zein den egiazta dezakete, eta oraindik Osakidetzako Curriculum Vitae-an sartu gabe daudenak erregistratu ahal izango dituzte, baliozkotzeko dokumentazio egokia aurkeztuta. Informazio hori guztia kontuan hartuko da Ebaluazio Prozedurarako, zeina deialdiaren hurrengo fasea izango baita.

Ohiko deialdi honetan ebalua daitezkeen faktoreak abenduaren 19ko **2081/2025 Ebazpenaren eranskinetan** zehazten dira. Irailaren 22ko 395/2005 Dekretuak, otsailaren 27ko 35/2007 Dekretuak eta abenduaren 26ko 248/2007 Dekretuak ezarritako esparruaren arabera, kasu bakoitzean aplikatu daitezkeen faktore ebaluagarriak Osakidetzan garapen-maila aitortzeko eskatzen den lanbide-taldearen arabekoak dira.

Hauek dira faktore ebaluagarriak:

- **jarduera asistentziala** (A1 eta B1 lanbide-taldeetan), **jarduera eta lanean aritzea** (A2, B2, C eta D lanbide-taldeetan) edo **jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala** (E lanbide-taldeetan);
- **lanbide-jakintza** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako) edo **gaitasuna eta lanbide-jakintza** (C eta D lanbide-taldeetarako);
- **prestakuntza** (lanbide-talde guztientzat);
- **irakaskuntza eta jakintzaren hedapena** (talde guztietarako, eta C, D eta E taldeen kasuan, **berrikuntza** ere sartzen da);
- **ikerikuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk** (A1, A2, B1 eta B2 lanbide-taldeetarako soilik), eta
- **erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa** (lanbide-talde guztientzat).

Aldi berean, faktore ebaluagarriak hainbat azpifaktoretan artikulatzen dira, eta azpifaktore horiek, aldi berean, hainbat itemetan.

Era berean, faktore ebaluagarriak hiru multzo handitan biltzen dira.

**A blokeak** faktore hauek biltzen ditu:

- jarduera asistentziala (A1 eta B1), jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D) edo jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldean); eta
- lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

**B blokeak** faktore hauek biltzen ditu:


- prestakuntza;
- irakaskuntza eta jakintzaren hedapena (eta C, D eta E taldeetarako berrikuntza), eta
- ikerkuntza, berrikuntza eta beste merezimendu batzuk (A1, A2, B1, B2).

Azkenik, **C blokea** faktore hau da:

erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa.

## 2. APLIKAZIORAKO SARBIDEA

Profesionalak aplikazioan sartu nahi duenean, NORBIDEko kredentzialak erabili behar ditu (NANaren eta pasahitza):



### 3. AUTOEBALUAZIOA

Profesionala leiho honetan sartu, eta deialdiari buruzko informazioa agertuko da (deskribapena, egungo egoera, eskaeraren hasiera- eta amaiera-data eta emandako zerbitzuen muga-eguna):

Lanbide-garapenaren deialdia				
Deskribapena: 1184/2023 - 2022 LG DEIALDI ARRUNTA	Uneko egoera: AUTOEBALUAZIOA	Eskatzeko epearen hasiera/amaiera: 2023/06/29 - 2023/08/02	Egindako zerbitzuen epemuga: 2022/12/31	
Deialdiaren ebazpena	Deialdiaren argibideak	Erantzukizuneko adierazpena	Lanbide-garapenari buruzko informazioa 1	Lanbide-garapenari buruzko informazioa 2
<small>Lanbide Garapeneko 1184/2023 Deialdi Arrunteko Ebazpenaren (ekainaren 19koa, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko zuzendari nagusiarena) dionaren arabera, "Lanbide-garapenaren mailaren eskaera aurkeztea borondatezkoa da, eta, eskaeran, interesdunek egiaztatu beharko dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela edo baldintza horiek eskaerak aurkezteko epearen barruan betetzeko moduan daudela."</small>				
<small>Eskara-data: 2023/06/29 08:35</small>				
<a href="#">Sartu</a>				

Deialdira sartzeko, hau sakatu beharko da:




Sartzean, erabiltzaileak hainbat datu ikus ditzake:

- Egoerari buruzko datuak: datu pertsonalak eta antolamenduzkoak, lanpostuari buruzko datuak (beteta dagoen eta titularra nor den) eta lanbide-garapenaren egungo egoera
- Emandako zerbitzuak
- Eskaerak
- Izen-ematea
- Ebaluazioa

Deialdiaren informazioa				
<b>Egoerari buruzko datuak</b>	Emandako zerbitzuak	Eskaerak	Izena ematea	Ebaluazioa

Autoebaluazioa egiteko, hau sakatu beharko da:



Sartzean, pantaila hau bistaratuko da:

Deialdia: 1184/2023 - LANBIDE GARAPENENKO DEIALDI ARRUNTA

Egoerari buruzko datuak   Emandako zerbitzuak   Eskaerak   Izena ematea   **Ebaluazioa**

Profesionala: [REDACTED]

Deialdia: 1184/2023 - CONVOCATORIA ORDINARIA

Lor Daitekeen LG Maila: 3   Lanbide Taldea: A1   Espezialitatea:

**Autoebaluazioa**  
 Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimendua eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea   B Blokea   C Blokea

+ **Jarduera Asistentziala**

+ **Lanbide Jakintza**

Baieztatzen dut badakidala autoebaluazioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidalitako datuak.

**GORDE ZIRIBORROA**   BIDALI AUTOEBALUAZIOA

Goiburuko datuetan, profesionalak informazio hau ikusi ahal izango ditu:

- Deialdia
- Lortu nahi den maila
- Lanbide-taldea

Pantailaren behealdean, ebaluazioaren blokeak ikus daitezke:

A Blokea   B Blokea   C Blokea

Profesionalak **bloke bakoitzetik igaro** behar du, bloke bakoitzari dagokion informazioa betetzeko.

**Autoebaluazioa**  
 Eskatzaileek azaroaren 27ra arteko epea izango dute curriculum-merezimendua eta autoebaluazioa bete eta aurkezteko, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren ekainaren 19ko 1184/2023 Ebazpenean ezarritakoaren arabera.

A Blokea   B Blokea   C Blokea

+ **Jarduera Asistentziala**

+ **Lanbide Jakintza**


Baieztatzen dut badakidala autoebaluazioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidalitako datuak.

**GORDE ZIRIBORROA**   BIDALI AUTOEBALUAZIOA

Zabalduta daitezkeen atalak identifikatzeko, ikono hau erabiltzen da:  .

Atal bakoitza zabaltzeko, profesionalak horietako bakoitzaren gainean klik egin behar du:

+ **Jarduera Asistentziala**

Konprimatu nahi izanez gero, erabiltzaileak blokearen gainean klik egin behar du. Blokea zabalduta badago, ikono hau agertuko da:  .

## 1 A blokea

Hauek dira blokearen faktoreak:

- jarduera asistentziala (A1 eta B1), jarduera eta lanean aritzea (A2, B2, C eta D) edo jarduera, gaitasuna eta betetze profesionala (E lanbide-taldean); eta
- lanbide-jakintza (A1, A2, B1 eta B2) edo gaitasuna eta lanbide-jakintza (C eta D).

Profesionalak atal bakoitza zabaldu eta bete beharko du.

A1 eta B1:

**Jarduera Asistentziala**

**Denbora-banaketa**

Bete ezazu honako hauei eskaintako denboraren banaketa:

% Ospitalizazioa	% Eguneko O.	% Kanpo-kontsultak	% Larrialdiak	% Ebakuntza-gela	% Masketak
0	0	0	0	0	0

(\*) Zehaztu profesionalak beste zein esparrutan lan egiten duen, baita ematen duen denboraren frakzioa ere.

% Beste batzuk (zehaztu)\*

0

A2, B2, C eta D:

**Jarduera eta Lanean Aritzea**

**Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa**

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure unitate/zerbitzu lortutako emaitzei

Itema: Atalaren/Unitatearen helburuak

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi

Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

E:

**Jarduera, Gaitasun eta betetze Profesionala**

**Lanbidean eguneratu eta hobetzea**

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure atal/taldeak/unitateak lortutako emaitzei

Itema: Atalean/Unitatean garatutako proiektuei laguntzea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi

Izena Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

**Jarduera asistentzialari** buruzko datuei dagokienez, A1 Fakultatiboak taldeko eta B1 Diplomadun Sanitarioak taldeko profesionalek beren zerbitzuen/unitateen emaitzei egindako ekarpen-mailari buruzko datuak bete beharko dituzte, honela: 1.1 azpifaktorearen barruan, Helburuak lortzeko eta betetzeko orientazioa (A1erako), eta 1.1 azpifaktorearen barruan, Taldearen helburuak lortzea eta haiei egindako ekarpen individuala (B1erako).

- A1 taldea. Fakultatiboak:

**Jarduera Asistentziala**

**Denbora-banaketa**

**Helburuak Lortu Eta Betetzeko Orientazioa**

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure zerbitzuak/unitateak lortutako emaitzei

Itema: Bisiten efizientzia-indizea

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

- B1 taldea. Diplomadun Sanitarioak:

**Jarduera Asistentziala**

**Taldearen Helburuak Lortzea Eta Horiek Lortzeko Ekarpen Indibidualaren Maila**

Baloratu zenbateraino lagundu diezun zure zerbitzuak/unitateak lortutako emaitzei

Itema: Batez besteko egonaldia

Ekarpen-maila: Aukeratu

Balorazioa justifikatzen duten informazioa/datuak/argudioak ematea

Erantsi: Izena, Tm

Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa

Profesionala A1 Fakultatiboak lanbide-taldekora bada, **jakintza teknikoaren atalean dagokiona bete beharko du**, hau da, Ospitaleko Arreta edo Lehen Mailako Arreta:

**Lanbide Jakintza**

**Jakintza Teknikoa**

**Ospitale-arreta**

Hautatu zure ustez konplexutasun tekniko handiena duten 3 jarduerak, eta identifikatu horietako bakoitzerako erabilitako teknikak, berekin dakartzan konplexutasun-alderdiak, egiten den autonomia- edo erantzukizun-maila eta horietan ematen den dedikazioaren ehunekoa.

Jarduerak: [ ]

% dedikazioa: 0

Autonomia/erantzukizun maila: [ ]

Erabilitako teknika esanguratsuek edo garrantzitsuak: [ ]

## 2 B blokea

B bloketik, profesionala Curriculum Vitae weberra sar daiteke, egokitzen jotzen dituen merezimenduak sartu ahal izateko. Sartzeko, "Merezimenduen alegazioa..." esteka sakatu behar da.

The screenshot shows a web interface for 'Osakidetza' (Basque Health Service). At the top, there are navigation tabs for 'A Blokea', 'B Blokea' (selected), and 'C Blokea'. Below the tabs, a blue banner contains the text: "B blokeko curriculumaren merezimenduak (Prestakuntza, irakaskuntza eta ezagutzaren zabalkundea eta lerkuntza eta berrikuntza) Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira." The main content area features a large graphic with the text "CURRICULUM VITAE" and a magnifying glass icon over it. Below the graphic is a search form with the following elements:

- Language selection: ES (selected), EU
- Search criteria: "Osakidetzako Profesionalak eta Profesional Ohiak" (selected)
- Search criteria: "Osakidetzako Profesionalak" (selected)
- Search input field: "A. NANJAZ"
- Search input field: "B. Pasahitza"
- Search button: "Hasi sarea"

### 3 C blokea

"Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa" faktoreak osatzen du bloke hau.

"Erakundearekiko lankidetzaren" azpiatalean, komite, batzorde, epaimahai eta lantaldeetan izandako parte hartzea bat dator Curriculum Vitae aplikazioko Taldeetan parte hartzeari buruzko atalarekin. Sartzeko, "Merezimenduen alegazioa..." estekan klik egin behar da.

Erakundearekiko inplikazioa eta konpromisoa

- Talde-lana
- Erakundearekiko lankidetzaren
  - Batzorde, epaimahai eta bestelako organo korporatiboak
    - C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa). Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira
  - Zerbitzu-erakundeetako batzordeak, epaimahaiak eta bestelako organoak
    - C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa). Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira
  - Osakidetzako lan-taldeak
    - C blokeko curriculumaren merezimenduak (Parte-hartzea eta Konpromisoa). Curriculum Vitae aplikazio informatikoan alegatu behar dira

Profesionalak bete beharko ditu gainerako azpiatalak.


### 4 Eranskinak

Item ebaluagarri bakoitzerako, profesionalak eranskin bat edo batzuk sartu ahal izango ditu. Horretarako, eranskinen atalean, "Bilaketa" sakatu beharko duzu:

Erantsi

Izena	Tm
Utzi fitxategiak eransteko edo bilaketa	


Pantaila bat irekiko da erantsi beharreko fitxategia hautatzeko:



Erantsitokoa, honela bistaratuko da:




Profesionalak dokumentu bat baino gehiago erants dezake:



Eranskinak ezingo dute 2 MB baino gehiago izan:

Erantsi	
Izena	Tm
 Utzi fitxategiak eransteko edo <a href="#">bilaketa</a>	
prueba.pdf✘	14.40 MB
Fitxategia handiegia da; asko jota 2 MBkoa izan behar du	

Eranskina ezabatu nahi izanez gero, x klikatu beharko da:

Erantsi	
Izena	Tm
 Utzi fitxategiak eransteko edo <a href="#">bilaketa</a>	
prueba.pdf✘	14.40 MB
Fitxategia handiegia da; asko jota 2 MBkoa izan behar du	

## 5 Gorde zirriborroa



Profesionalak unero gorde dezake autoebaluazioan bete duena, geroago betetzen jarraitzeko. Horretarako, profesionalak "Gorde zirriborroa" botoia sakatu beharko du:

**GORDE ZIRRIBORROA**

## 6 Bidali autoebaluazioa

Autoebaluazioa egin ondoren, profesionalak bidali ahal izango du, baina aurretik mezu hau berretsi beharko du:

Baieztatzen dut badakidala autoebaluazioa bidali ondoren, ezin izango ditudala aldatu bidalitako datuak.

Ondoren, autoebaluazioa bidaltzeko ikonoa gaituko da (  beharrean, honela agertuko da:  )